



## 'NOAOA'-KOAK LEITZAKO HAURREKIN

Telebista saioko aktore ospetsuek grabaketa egin zuten herriko plazan; irudiak saio amaieran aterako dira >7

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna**  
**2009-03-12**

VII. URTEA 1.651. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

# Adunako hondakin uren araztegia eraikitzeko lanei ekin diete

**TOLOSALDEA** Eskualdeko 19 udalerriri emango dio zerbitzua; 2011rako martxan egotea aurreikusi dute

**DATUAK** 25 milioi euroko aurrekontua du obrak; Foru Aldundiak eta Ur Kontsorzioak finantzatuko dute 2



Atzo, lehen harria jarri zuten agintariek; ur zikinen araztegiak 20.000 metro koadroko azalera hartuko du. I. TERRADILLOS

## Mugikortasun Planaren lehen fasean, inkestak eta zenbaketak

**IBARRA** Planaren helburua trafiko arazoak konpontzea izango da; bigarren fasean, ekintzak egingo dituzte, atera dituzten ondorioekin 6

**PEIO AÑORGA** IPUIN-KONTALARIA

«Erantzuteko entzuten jakin behar da, horretarako bidea da ipuin-kontaketa»

**TOLOSA** Bihar, Ahoz aho jaialdiaren baitan, Euskal Herrian aitzindari den Añorgaren saioa izango da 3

digitala  
**h**  
@

Astelehenean, martxoak 16, 16:30ean  
**KIKE AMONARRIZ**  
tolosarrarekin elkarrizketa digitala

*Bidali zure galdera!*

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidali ditzakezue gure webgunean.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info) webgunean



# 2011n martxan egongo da Adunako hondakin uren araztegi berria

**Aduna** » 19 udalerriri emango dio zerbitzua, denera, 60.658 biztanleri; 25 milioi euroko aurrekontua du obrak.

**INIGO TERRADILLOS**

Adunan Oriar Ekdialdeko hondakin uren araztegi berria egiteko lanak hasi dituzte. Araztegi honek 19 udalerriri emango dio zerbitzua, eta 2011n martxan egotea espero dute, obrek 20 hilabete iraungo baitute. Guztiraia 25 milioi euroko aurrekontua du proiektuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Ur Kontorsioak erdi baina finantzatzeko dute. Gipuzkoako ahal-dun nagusiak Markel Olano eta Ur Kontorsioako lehendakariak, Patxi Plazaolak jarri zuten atzo eginiko ekitaldian azpiegitura berri honen lehen harria.

Hain zuzen ere, Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Altzo, Amezketa, Andoain, Anoeta, Asteasu, Balarra, Belauntza, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Legorreta, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil herriei emango die zerbitzua Adunan egingo duten araztegi berriak, orotara, 60.658 biztanleri. Gipuzkoan izango diren 14 araztegien sarea osatuko duten arazketako azpiegitura handietan azkenekoa da Adunakoa.

## 20.000 m2ko azalera

Araztegia Oriar ibaiaren ezker aldean kokatuko dute ibai bidea baino 10 metro gorago, 20.000 m2ko azalera hartuz, lau futbol zelai gutxi gorabehera. Araztegi elementu guztiak Agedamunde erreka-aren alde berean jarri ahal izateko, erreka pixka bat desbideratuko dute. 60.658 biztanleri zerbitzua eman arren, 92.247 biztanleko populazioari zerbitzua emateko gai izango da, eta industrialdeetako



Ormazabal, Olano eta Plazaola, atzoko ekitaldian, Adunan. I. TERRADILLOS



Ur zikinaren araztegiak 20.000 m2ko azalera hartuko du. I.T.

urak tratatzeko ere prestatuta egongo da, eta etorkizunean arroa bereko beste herri batzuetakoak ere bai. Denboraldi lehorretan, orduko 1.170 m3-ko emaria tratatuko du, eta bustietan, 5.314 m3.

## «Ingurugiroaren zaintzearen aldeko apostua»

Atzo goizean egin zuten lehen harria jartzeko ekitaldian izan ziren Markel Olano Gipuzkoako ahal-dun nagusia, Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorreko diputatua eta Patxi Plazaola Gipuzkoako Ur Kontorsioako lehendakaria. Han

izan ziren, baita ere, araztegiak zerbitzua emango dien udalerrietako Udaleko ordezkariak. Carlos Ormazabalek nabarmendu zuenez, «Oriar ibai beste egoera batean dago gaur egun, eta hasi diren lan hauek amaitzen dituztenean egoera hobean egongo da». Ibiurtegitik hasiko den prozesua ere aipatu zuen, izan ere «handik hartuko da ura, eta erabili ondoren, Adunan garbituko da».

Bestalde, Patxi Plazaolak esan zuen egun pozgarria dela Ur Kontorsioarentzat, «lan hauek hasten baitira». Hala, «ingurugiroa zain-

tzean egin duten apostua» azpimarratu nahi izan zuen. «Ura ku-deatzeko eta ingurugiroa zaintzeko lan eta kostu handia du, eta hori kontuan hartzen jakin behar dugu guztiok erabiltzerako orduan, batetik bat». Zentzu honetan, aipatu behar da, proiektuak berekin duen ingurumen eraginaren azterketan aurreikusita dagoela erreka bazterreko landaredia babestea eta erreka-bide berrikoak birsortzea natura ingenieritzako teknikak erabiliz.

Markel Olano, bere aldetik, nabarmendu nahi izan zuen aldaketa handia gertatu dela ingurugiroaren ikuspegitik Gipuzkoan. Hala-ber, «lan publikoak sortzearen beharra» azpimarratu zuen: «herri lanen alde egiten dugu apostua, izan ere, gauden egoeran lanpostuak sortzea oso garrantzitsua da».

## 34 kilometro kolektore

Instalazioak lau eraikin izango ditu: aurretratamendukoan, ponpatu, arbastatu eta hondakinak bil-tzeko zirkuitua izango du; lohien eraikinean, lohikak deshidratatzeko sistema; puzgailuen eraikinean, prozesu biologikoa aireztatzeko; eta azkenekoa, araztegiako kontrolak eta bulegoak egongo dira.

Instalazio horietara 19 herrietako ur zikinak eraman ahal izateko 33,8 kilometro kolektore behar dira, eta horiek egiteko 61.361.000 euroko inbertsioa egin dute Foru Aldundiak, Ur Kontorsioak eta Eusko Jaurlaritzak. Kolektore handiena 26,1 kilometrokoa da, Legorretatik araztegiainokoa. Beste hiru adar ere egin dira, Araxes aldeko hondakin urak (Tolosan egiten ari diren sarea), Asteasu eta Andoaingo kolektoreak. Hiru hauen artean 7,7 kilometro osatzen dituzte. Araztegia martxan jartzean, arazketari esker, ura berriro Oriar ibaira itzuliko da, «ibaiko bizitza suspertuz».

## » ZENBAIT DATU

- **Proiektua.** Adunako ur zikinaren araztegia.
- **Aurrekontua.** 24.788.416 euro.
- **Helburua.** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Altzo, Amezketa, Andoain, Anoeta, Asteasu, Balarra, Belauntza, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Legorreta, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil herriei zerbitzua ematea, 60.658 herriarrei guztira.
- **Obrak.** 20 hilabete iraungo dute, beraz, 2010erako amaituta egongo dira, eta 2011n martxan egotea espero dute.
- **Sarea.** Gipuzkoan egongo diren 14 araztegien sarea osatuko duen arazketako azpiegitura handietan azkenekoa da Adunakoa.

## Prozesua

### ■ Uraren tratamenduaren faseak.

Araztegiak zerbitzua emango dien 19 herrietako hondakin urak Legorretatik eta Andoaindik datozen bi kolektoretan barrena etorriko dira araztegiara, eta zirkuitura ponpatuko dira. Aurretratamenduko fasean garbiketa fisiko sinple bat egiten da, kutsagarri solido koskorak, hondarrak eta koipeak kenduz.

Ondoren, lehen dekantazioa hasiko da; hiru dekantagailu biribil handitara pasako da ura, daramatzen solido txikiak jalki daitezen.

■ **SBR sistema.** Elementu solidoak galdu ditunean, tratamendu biologikoaren fasera pasatzen da ura, disolbatuta dituen gai organikoak eta elikagarriak han kentzeko. Hau urmael handi batean egingo da. SBR (Secuencial Batch Reactor) tratamendurekin indartu egiten dira naturan gertatzen diren erre-akzio biologikoak. Erreakzioa errazteko, airea sartu eta erreakto-reak astintzen dira.

■ **Lohien tratamendua.** Arazte-tan, lehen dekantazioan eta fase biologikoan, lohikak sortzen dira, eta horiei ura eta materia organikoak kentzeko eta lohi lehor eta egonkorra lortzeko sistema bat dauka. Hauek dira lohien zirkuituaren prozesuak: bahetzea, loditzea, egonkortzea, deshidratatzea eta bilgiritzea.

# «Adunako herria eta Udala gutxietsia sentitu dira»

**I. TERRADILLOS**

Lehen harria jartzeko ekitaldia hasi aurretik Arantxa Aburuza Adunako alkateak eta Joxean Iruza zinegotziak proiektuaren inguruko euren kexa azaldu zieten bertan bildutako ordezkariak idatzi bat emanaz. «Gutxietsia» sentitzen direla esan zieten, eta «Obrak

Hidraulikoetako Zuzendaritzak eta Garapen Iraunkorrerako Sailak izandako jarrera salatu zuten; «Sekula ez dugu proiektuagure eskuetan izan, gure azterketei eta hainbat Udaletik bidalitako idatziei ez diete kasurik egin, gure eskaerak ez dira kontuan hartu, ez dugu jakin obrak noiz hasiko ziren,



Adunako alkatea eta zinegotzia, Ormazabal, Olano eta Plazaolarekin. I.T.

ez dugu behar adina informazio izan, Aldundiko inor ez da inoiz etorri udaltekera, obrara iristeko errepidea asko larrituko da, eta ez dute konponduko», salatu zuten. Proiektuarekin ados daudela dio-te, baina ez egiteko moduarekin.

## «Guk informazioa eman dugu»

Obrak Hidraulikoetako zuzendaria eta proiektuaren zuzendariak, Adunako Udalarik erantzunez, hainbat bilera izan dituztela euren esan zuten; «informazioa euren esku izan dute, eta euren iradokizunak kontuan hartu ditugu; gainera, beste araztegiak ez dituzte esaten duten arazoak sortu».

Kikara tabernak,  
gaur osteguna,  
martxoak 12,  
19:00etatik 21:00etara  
bere irekierara  
gonbidatzen zaituzte.

kikara  
Kale Barrena 3 behe  
Tolosa

**E Elkarrizketa**

**PEIO AÑORGA** ▶ Ipuin-kontalaria

# «Entzuten jakiteko bidea da ipuin-kontaketa»



OARSOALDEKO HITZA

**Kultura** » Ahoz aho jaialdian, ipuin-kontaketan Euskal Herrian aitzindari den Peio Añorgaren saioa izango da bihar 19:00etan.

**ESTI ZEIZIA**

Bideojokoak, jostailuak eta telebisita dira egun haurren arreta deituko erabiltzen diren tresna nagusiak. Baina Peio Añorgak (Oiarzun, 1956) hogeit urtetik gora daramatza, hitza lagun, bestelako sostengurik gabe, hauen begirada eta gogoak pizten. Ahoz aho jaialdiaren baitan, bihar Tolosako txikienei, tokitik mugitu gabe bidaia-tzen lagunduko die. Emanaldia Sartutasortu tailerrean izango da, 19:00etan.

**Nolakoa izango da biharko saioa?** Kontu zaharrak eta berriak tartekatuko ditut. Gauza ezberdinak eramango ditut eta jendearen arabera, batzuk edo besteak erabilik ditut.

**Beraz, saioak inprobisatu egiten dituzu?**

Mementoaren arabera egokitzen ditut. Adina kontuan hartu behar da saioa hasterako. Esaterako, emanaldia aurrera doan heinean, jendea nekatuta dagoela ikusten badut, ipuin azkarragoak tartekatzen ditut. Hala ere, ez zait gustatzen kontaketa erabat antolatua eramatea.

**Duela 23 urte hasi zinen ipuin-kontalari gisa, zergatik?**

Orduan, Oiarzungo ikastolako irakasle nintzen eta hasia ngeon ipuinak kontatzen. Baina orduan ez zegoen kontaketa inguruan ezeregin. Ez zegoen liburutegirik ere. Koldo Ameztoi hasiberria zen, eta erabaki nuen urtebeteko eszedentzia eskatzea eta horri ekitea.

Herriz herri hasi nintzen eta eskera asko egiten hasi zitzaizkidan. Hori ikusita liburuzain batzuekin hitz egin ostean, Ipuin-ordua sortu genuen. Gaur egun oso zabaldua dago, baina orduan gauza exotiko bezala ikusten zen, berria baitzen, eta dena egiteko zegoen. Hortik aurrera, ipuin-orduak, animazioak... hasi ziren sortzen liburutegietan. Hala, azpiegiturak sortzeari ere ekin nion, batez ere Eskoriatzako Mondragon Unibertsitatearekin.

**Bidea irekitze hori zaila izan al zen?**

Hutsetik hasi nintzen, eta erreferentziarik ez nuen hemen, horregatik, kanpoan aurkitu behar izan nituen. Paris eta Bartzelonan aurkitu nituen, baina ipuin-kontalariaren figura ez zegoen gehiegi zabaldua. Ondorioz, Frantziakoekin-eta jarri nintzen harremanetan eta Koldo Ameztoirekin batera, lan horretan hasi nintzen. Hori autotididakta izan naiz, baina hori bai, haurrak eta komunikazioa lagun izan ditut beti. Hortik aurrera, jende gehiago hasi zen lanean mundu horretan, eta joera ezberdinak sortu dira. Orain, jada, oso zabaldua dago eta sartuta dagoen espazio bat da.

**Egun haurrentzako saioak bakarrik egiten dituzu, baina helduei ere kontatu izan dizkiezu ipuinak.**

Haurrentzako espazioa oraindik gehiago landu beharra dagoela uste dut. Horregatik, azken urteetan hauekin bakarrik ari naiz. Egun, haurrentzako asko kontatzen da, baina asko, jolas eta entretentuz. Baina nire ustetan, nahiz eta hau egin, isiltasunera ere eramane behar ditugu, eta beste era batera parte hartzen irakatsi. Bar-

neko mugimentuak gehiago interesatzen zaizkit: haurrak isiltasunera eramatea, isilik egoten jakitea, elkar entzuteko espazioak sortzea... Horregatik, egun, haurrentzat nahiz gurasoentzat ari naiz lanean. Oraindik asko dago egiteko arlo honetan.

**Zeintzuk dira haurrei zuzendutako saioen eta helduenen arteko desberdintasunak?**

Oinarriko gauza bera da. Zerbait esaten dizun, edo hunkitzen zaituen istorio bat izan behar duzu, eta hori transmititzeko gogo. Haurrentzako kontatzean, erritmo biziagoa eraman behar da derrigorrez. Baina bietan zaindu behar da. Txikien kasuan, kontraste gehiago, ipuin sinpleagoak, egitura sendoagoak eta inguru hurbilekoak goko egoerak erabili behar dira. Helduentzako gauza abstraktuak goko kontak ditzaizkezu.

**Saio hauek beti al dute helburu didaktikoa, edo askotan entretenitza bakarrik bilatzen da?**

Niretzat helburua, elkar entzuteko parada izatea da. Istoria ahalik eta ongien kontatzen saiatu behar da. Gero, balore bat edo beste transmititzen bada, ongi dago, baina ni ez naiz baloreak zabaltzera joaten. Istoria bat ondo eraikia badago, eta horrekin gozatzen baduzu, jada, balio bat badauka horrek. Literaturaren eta kontalarien zeregina da, bizitza beste alde batetik begiratzen jakitea, ikuspegi zabala izan dezagun elkarrekin.

**Zaila al da haurren arreta erakartzea?**

Azken urteetan ikusten ari naizena da, haurrek bai, baina helduek ez dakitela egoten. Lan asko egin beharra dago gurasoekin. Haurrentzat ez ezik, helduentzat ere kontatzen baititugu ipuinak, eta hauek dira interferentzia handie-

nak sortzen dituztenak. Haurrak bezala jarri eta ipuinez gozatzeko gonbita luzatzen diet. Izan ere, gehienetan uste dute emanaldia haurrentzat bakarrik dela, eta ez dute jaramonik egiten. Horregatik, askotan, gurasoak kanpoan utzi behar izaten ditugu, ez baitakite entzuten.

**Ipuinak entzuteak zein onura ekartzen ditu?**

Gauza asko esan daitezke, baina bat izan daiteke, hizkuntzarekin harreman afektiboa eta emoziona-

la sortzearena. Hau, txikitik egiten ez badu, gero jai baitago, emozioak ezingo baititu transmititu hizkuntza horretan. Bestetik, elkar entzuteko espazioak sortzea. Baieztaua baitago, istorioak kontatzen diren lekuetan haurrak ohi-tuagoak daudela entzutera. Hala, askotan diot, erantzuten jakiteko, lehendabizi entzuten ikasi behar dela, eta honetarako bide da ipuin kontaketa. Azkenik aipatu, beste begirada batzuk emateko aukera.

# TXOTX

**Rezola** Tel.: 943 556 637 Astigarraga  
Ipintza baserria - Santio Zaharra

**Oialume Zar** Tel.: 943 552 938 Astigarraga  
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)

**Akelenea** Tel.: 943 333 333 Astigarraga  
Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com

**Gurutzeta** Tel.: 943 552 242 Astigarraga  
Oialume bidea 63 (sarrera Ergobiatik) www.gurutzeta.com

**Lizeaga** Tel.: 943 468 290 Astigarraga  
Gartziategi baserria, Martutene pasealekua, 139

**Elutxeta** Tel.: 943 556 981 Urnieta  
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

**Larre Gain** Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani  
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa

**Otsua-enea** Tel.: 943 556 894 Hernani  
Osiñaga auzoa

**Urdaira** Tel.: 943 372 691 Aginaga-Usurbil  
Urdaira baserria

**Otatza** Tel.: 943 801 757 Zerain  
Otatza baserria

**Urbitearte** Tel.: 943 180 119 Ataun  
Ergoiena auzoa

**Ohiarte** Tel.: 943 501 013 Zerain  
Ohiarte baserria

**Isastegi** Tel.: 943 652 964 Tolosa  
Aldaba Txiki auzoa www.isastegisagardotegia.com

**Begiristain** Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta  
Iturrioz baserria

**Zabala** Tel.: 943 690 774 Aduna  
Garagartza baserria www.rzabala.com

**Aburuza** Tel.: 943 692 452 Aduna  
Goiburu auzoa, Olatza etxea

**Sarasola** Tel.: 943 690 283 Asteasu  
Bebailara auzoa

**Zalbide** Tel.: 943 652 176 Abaltzisketa  
Zalbide baserria

**Eguzkitza** Tel.: 660 654 317 Tolosa  
Usabal auzoa, 25

**Erreka** Tel.: 948 510 625 Leitza  
Erreka auzoa

## DIEZ Autobusak

Autobusak eta mikrobusak herriko herriko  
Herriko herriko herriko herriko herriko  
Herriko herriko herriko herriko herriko herriko  
Mundakale kalea, 34 / Tel.: 943 28 84 16 / Fax: 943 27 11 27 / 20013 DONOSTIA  
Pasaia 20013 / 20013 / 20013 / 20013 / 20013





## Camposek Laskorain zoriondu du

**TOLOSA** ● Tontxu Campos Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak Laskorain ikastola bisi-tatu zuen astelehenean. Euskalit erakundeak Urrezko Q saria eman zion pasa den abenduaren eta «zoriontzera» etorri zen. Jose Luis Lafuente Euskaliteko arduraduna eta Jokin Bildarraitz Tolosako alka-tea ere bertan izan ziren. Ekitaldian ikastolako langileaz gain, ikasleak, gurasoak, inguruko ikastoletako ordezkariak, Hezkuntza Saileko zenbait kide, alderdi politikoetako kideak eta beste zenbait gizarte eragile lagunak ere izan ziren. HITZA

## L Laburrak

### KZgunean ONA txartela eskuratzeko aukera

**ANOETA** ● KZguneako ateak zabalik daude gaur eta bihar artean, goi-zez, 10:00etatik 14:00etara eta, arratsalde, 16:00etatik 20:00etara. Zortzi orduz, beraz, Anoetako KZgunean interneten nabigatzeko aukera izango dute erabiltzaileek. Halaber, bertan ONA txartela tramitatzeko aukera izango dela jakinarazi dute.

### Igandean Sagain mendi taldearen irteera

**ASTEASU** ● Sagain mendi taldeak igandean Valderejoko natur par-tera egingo du irteera. Bi ibilbide prestatu dituzte; biak ere Herran herriatik abiatzen dira azken zatian banatuko dira, berriz Herran herrian amaitzeko. Ibilbide motza, zailtasun gutxikoa, 3 ordu eta erdi ingurukoa izango da eta ibilbide lu-zea, zailtasun ertainekoa, 5 ordu ingurukoa. Interesatuak Asteasu-ko kiroldegian eman dezakete izena (943 693400).

# 'Piratak' ikuskizunarekin gurean ariko dira Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

**Tolosa** ● Leidor aretoan izango da emanaldia etzi, larunbata; bi saio egingo dituzte, 16:30ean eta 18:30ean.



Pasa den urtarrean ere emanaldia eskaini zuten pailazoak. BARTOLAREN BATZORDEA

Sarrerak ia agortuta daudela ja-kinarazi dute Galtzaunditik baina oraindik ere lortzeko aukera dago, 6 euroren truke, egoitzan bertan (Nafarroa etorbidea 6behea, Tolo-sa), Leidor Zinema aretoan edo [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) web gunean.

**Pailazoak altxorraren bila**  
Euskal Herria, elkartasuna, jolasa, Pakito izurdea, altxorra, abentura, itsasoa... uztartzen ditu Katxipo-rreta taldeko pailazoek azken lana. Pirritx, Porrotx eta Mari Motots altxor bila doaz, baina haurtxoen laguntza beharko dute, zailtasu-nak taldean gainditzeko.

#### ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak anto-latuta, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazo ezagunek kolorez beteko dute Leidor antzokiko es-zenatokia. *Piratak*, euren azken emanaldia, eskainiko dute bisaoe-tan; lehena, 16:30ean izango da eta bigarrena, 18:30ean.



Valdereko parkera joango dira. HITZA

### Bihar, Amabirjin jaia antolatzeko bilera

**ADUNA** ● Amabirjin jaia antolatze-ko bilerara deitu dute biharko Adunako Kultur Aretuan. 21:00etan hasiko da eta herritar guztien parte-hartzea eskatu dute, «denen ideiak eta proposame-nak» behar dituztelako.

### Familia ugariren titulua dutenentzat deialdia

**ZIZURKIL** ● Ondasun higiezin gai-neko zergan %50eko hobaria apli-katuko diete familia ugariren titu-lua izan eta baldintza hori justifi-ka dezaketen subjektu pasiboei. Ho-baria jaso ahal izateko martxoaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dute NAN eta indarrean dagoen familia ugariren titularen foto-kopia; errolda eta elkarbizitze ziurtagiria; titularrak eta onuradu-nek ohiko bizilekuaz gain inolako higiezin ez dutela adieraziko duen Foru Ogasunak emandako ziurtagiria eta 2008ko OHZren ordainagiriaren fotokopia. Infor-mazio gehiago udal bulegoetan edo honako telefonoan: 943 69 10 12 telefonoan egin daiteke.

tolosaldeko, leitzaldeko eta goierriko

**ostalaritza**  
Gida 2009

Jatetxeak, sagarrotegiak, erretegiak  
eta pintxo tabernak biltzen dituen  
**gidarik osatuen**

..orain **tolosaldeko hitza.info**-n ere bai!

Jatetxeen informazioa osatuen:  
argazkiak, informazio erabilgarria,  
iragarlearen webgunera link zuzena.

**Bilatzaile erabilgarria**

Hitza guztien gida **hitza.info**-n

**hitza**

**berria**rekin  
Munduko  
ZINEMA  
euskaraz

Otsailaren 28tik aurrera,  
larunbatero, zure kioskoan BERRIarekin

+ 4,90€  
Harpideunentzat, bilduma osoa 19,40€  
(Gutuna eragile: 94320 01 45)

Aukera ezaugarriak: euskaraz **berria**



Altzoko emakume talde batek Segoretzen egin zuen afaria. HITZA



Amafrakoen bideo emanaldia izan zuten herenegun Altzon. HITZA

## Emakumeentzako afaria prestatuko dute gizonezkoek Bedaion

**Gizartea** » Altzon Emakumearen Nazioarteko Egunarekin batera afaria eta bideo emanaldia izan zituzten.

### ERREDAKZIOA

Etzi, Bedaion Emakumearen Nazioarteko Eguna gogoratuko dute. Bertan, azken urteetan egin izan duten bezala, emakumeen afari herrikoia egingo dute eta gizonezkoek prestatzen dute emakumeentzat, Artubi elkartearen. Beraz, Bedaioko emakumeak zain jarrita daude, «beraizentzako bereziki prestatuko baitaizate afari goxo bat».

Mahaian eseri eta jaten hasi harite ez dute jakingo zer afalduko duten baina «ziurtasun osoa dute jango dutena gustukoia izango dutela». Aurreko urteetan sorpresaren bat ere izan dute eta aurten ere izango ote duten zalantzan daude. Horretarako joan eta ikusi behar...

Bakoitzari bere postrea etxetik ekartzeko eskatu diete eta goxo-narentzat saria izango da. Postrea saritzeko itxurari «garrantzi handia emango zaio»: nola apaindu eta zerbitzatzen den platera eta baita etxean egin bada ere, noski.

Izena emateko epea gaur bukatzen da eta dagoeneko jende askok eman du izena. Giro aparta izango dela ez dago zalantzarik, eta «oraindik izena ez baduzu eman, mugi daitezela!».

### Altzon «giro bikaina»

Altzon, Emakumeen afaria egin zuten joan den larunbatean eta herenegun iluntzean Amafrika taldearen eskutik bideo emanaldia izan zuten. Bertara 15 bat lagun hurbildu ziren eta «oso gustura gelditu ginen, bai joan ginenok eta baita Amafrakakoak ere». Emanaldiarekin batera hitzaldi bat ere izan zen eta informazio interesgarria eskuratu zuten altxotzarrek.

Onditz Jauregi eta Nahikari Iturbe zortzi hilabetez Afrika zeharkatzen aritu ziren. Lau hilabeteetan Luisa Montecelo ere bidaia-lagun izan zuten. Hiruek bizipen oso berezia izan zuten hegoaldera egindako bidaian eta hura ikusi zitekeen herenegungoan.

Hilaren 7ko afaria 30 emakume joan ziren; Segoretzen egin zuten eta «giro politan egon ginen bertan».

## «Arerio gogorra» izango du Zazpi-Itturrik bihar, Berria Txapelketako kanporaketan

**Pilota** » Adiskide pilota eskolako aurka Galdakaon jokatu dute 19:00etan hasita; irabaziz gero, finalerdian dira.

### NEREA URBIZU

Bihar arratsaldean, 19:00etan hasita Amezketa Zazpi-Itturriko pilotariak Berria Txapelketan ariko dira. Galdakaon jokatu ditzute kadete, jubenil eta seniorren mailako binakako partidak, bertako Adiskide pilota eskolaren aurka.

Kadeteen bikotea Gallurraldek eta Jakak osatuko dute, jubenilena Olaetxeak eta Arzelusek eta azkenik, seniorrena Elurbek eta Leundak. Galdakao aurkari gogorra izango da amezketarrentzat, sen-

do baitabil eta «zentratuta daude». Gainera «frontoia erosi dute», horrek esan nahi du ziurrenik euren aldeko jendea eramatea behintzat espero dela.

Amezketarren taktika honakoa izango da: «Kadeteen artekoa irabazi egin behar da, jubenilen artekoan tanteo pixka bat eskatuko diet, eta noski, irabaztea. Bukatze-ko, nagusien mailan zaila izango dugu irabaztea. Hori esaten dugu, Euskadiko Txapelketako txapel-dunak izan direlako Galdakaokoak eta indartsu dabilta». Gogoratu behar da irabaziz gero finalerdietara igaroko dela Zazpi-Itturri.

### Aurrera-Saiazen aurkaria

Aurrera-Saiazek joan den asteburuan Berria Txapelketako hirugarren kanporaketa jokatu eta irabazi zuten eta ondorioz finalerdietara

igaro da. Aurkaria Zugarralde da. Aldabideren aurka jokatu zuen eta hiru partidak irabazi zituen Zugarraldek.

VI. Berria Txapelketako finala martxoan azken asteburuan izango da eta Aurrera-Saiazek martxoaren 20ko partidak irabazten badu, finalera pasako da.

### Udaberri Txapelketa bukatzen

Udaberri Txapelketa ere azken txanpan da, final-laurdenei lekua eginez hasita. Hauen baitan, esaterako, Behar Zana pilota elkarte-ko ariko dira etzi, 19:00etan hasita. Honetan Antiguako pilota eskola-ko kadete mailako bikoteak bisatuko du Aduna, Behar Zanakoen aurka aritzeko.

Bestalde, GRAVN Txapelketan ere hasiko dira aurki, bai Zazpi-Itturri eta baita Aurrera-Saiaz ere.



## Intxurreren garaipena Castrorentzat

**ALEGIA** » Alegiako Intxurre futbol taldeak joan den asteburuan jokatu beharreko partidaren aurretik Manex Castro billabonatarra gogoratu nahi izan zuen. Izan ere, gertuko dute gaztea, futbol talde honetan aritutakoa baita lau denboralditan gutxienez. Alegia-

ko Intxurre taldeko jokalariek eta kideez gain, aurkariak ziren Gure Txokoak ere bat egin zuten Castorri animoak eta elkartasuna adierazteko garaian. 4-1 irabazi zuten Alegiakoek eta hari eskaini zioten garaipena. PATXI RENOBALDES



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA





Ibarrako sarreran trafiko arazoak izaten dira autoak gaizki aparkatzen dituztelako. R. CALVO

## Inkestak eta zenbaketak egin dituzte Mugikortasun Planaren lehen fasean

**Ibarra** » Trafiko arazoak konpontzeko eskatu dute plana; bigarren fasean ateratako ondorioekin ekingiz egingo dituzte.

REBEKA CALVO

Ibarrako trafikoa neurtzeko helburuarekin Udalak Bitaka SL Aholkularitza zentroari eskatutako Mugikortasun Plan Iraunkorrerako lanak hasi dituzte jada.

Zehazki martxoaren 3an hasi zuten lehen fasea eta ziurbat baino gehiagok erantzun dituela inkestazaleek egindako galderak. Izan ere, azken egunetan kalean ibili dira hainbat inkestazale, besteren artean, herritarrek autoa erabiltzeko dituzten ohituren berri izateko edota oinezkoen kopurua zenbatzeko.

Horiek horrela, martxoaren 3an hasi ziren inkesta lanak burutzen. Aipatu behar da, hala eta guztiz ere, hasierabatean, inkestaguztiak hilaren 3tik 6ra egitea aurreikusitakoa zutela, baina eguraldi txarraren ondorioz hilaren 5 eta 6an egin beharrekoak hilaren 10 eta 11ra atzeratu zituztela.

### Egindako lanak, egunez egun

Hilaren 3an Euskal Herria kalean aritu ziren inkestazaleak, Berastegiko norabidetik zetoztenen artean datuak bilduz. Helburua, Ibarako errepide nagusitik egunero pasatzen den auto kopurua zenbatzea izan zen. Hilaren 4an, aldiz, Apata industrialdetik Ibararuntz (Otarreaga kalea hartuz) zihozten autoak zenbatu zituzten eta, bestetik, Egialdeko auzo bidean gaur egun dagoen arazoaren aurrean, egoera zein den isladatu asmoz, bertatik pasatzen ziren auto kopurua zenbatu zituzten.

Hilaren 10ean Ibarako sarreran Idoiaga kaleruntz doan norabidean aritu ziren inkestazaleak, batetik, eta kontrako zentzuan herri gurentz zetozen autoak zenbatu zituzten, bestetik.

Atzokoan Belauntzako gurutzean egon ziren inkestazaleak Berastegitik eta Belauntzatik zetozten autoen artean datuak jasotzeko. Izan ere, bertan dagoen gurutzearen arriskua ere aipatutako plangintzan jasoko dute atera daitzeko ekintzen artean irtenbideren bat eman asmoz.

Aipatutako inkestaz gain, aztertuta gehiago ere gauzatu dituzte

azken egunetan. Lehenik eta behin oinezkoen kopurua zenbatu dituzte 10 orduz San Bartolome plazan eta ordu batez Uzturpe ikastolaren parean, Zaldune auzoan, haurtzaindegian, San Inazio auzoan eta Euskal Herria kalea Ibaigain kalearekin gurutzatzen den gunean. Era berean, auto pribatuaren matrikula mugimendua ere aztertu dituzte Euskal Herria kaleko 1 eta 17 zenbakien artean eta Idoiaga plazaren albora dagoen aparkalekuan Tolosako TAOak duen eragina aztertzeko.

### Zaratak eta aparkalekuak

Zarataren inguruko neurketak ere burutu dira ondorengo auzoetan: Euskal Herria kalean, haurtzaindegian, Apaterekek Otarreagarekin osatzen duen bidean, San Bartolome plazan, Zaldune auzoan, Euskal Herria kalea Ibaigainekin egiten duen gurutzean, Julian Gayerre auzoan eta Emeterio Arresen, besteren artean.

Mugikortasun Planaren lehen faseari dagokionez, oraingoz, egin duten azkena aparkalekuen inbentarioa egitea izan da, horrela, Ibarako autoen aparkalekurako duen ahalmena aztertzeko.

## Internet bidezko izapidetza prestakuntza

**Villabona** » KZgunean izango da administrazio elektronikoa buruzko 16 orduetako hastapen ikastaroa.

ERREDAKZIOA

Villabonako KZgunean Administrazio elektronikorako hastapenerako ikastaro berrirako izen-ematea ireki du. Bertan, besteak beste, errolda papera eskatzeko, enplegu eskaintzetara sartzeko, aldiakari ofizialak aztertzeko, foru ogasunekin izapidetak egiteko edo zirkulazioaren inguruko informazioa lortzeko argibideak emango dituzte.

KZgunea zentroak, Eusko Jaurlaritzaren eta Villabonako Udalarren elkarlanari esker, ikastaroan parte hartzen duten edozein administrazio eskaintzen dituen zerbitzu elektronikoen ezagutza bermatuko dute, hortaz.

Herritarrek on lineko administrazio berrian trebatzeaz gain, erabilera horren bidez administrazio izapidetzeetan itxaron denborak murriztu, kostuak gutxitu eta interneten inguruko konfiantza eta segurtasuna areagotu nahi dituzte. Ikastaroaren iraupena 16 ordukoa da eta doan egin daiteke. Izena emateko edota informazio gehiago eskuratzeko KZgunea joan daiteke edota 943 88 43 78 telefonora deitu.

## Arruti eta Esnaola Gipuzkoako txapeldun

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean izan zen trinketeko Gipuzkoako 2. mailako txapelketa irabazi zuten Villabonako Behar-Zanako Imanol Arruti eta Jon Ander Esnaola pilotariak. Partida oso erraz irabazi zuten, gainera, 40-8 emaitzarekin eskratu zutelarik garaipena. Aipatu behar da, era berean, Behar-Zanako 1. mailan ere bazutela talde bat (Akelarre) eta hau utzi eta be-

rriro ere taldea lehen mailara eramatea izan zutela helburua.

Horrela datorren denboraldian 1. mailan ariko dira bai binaka eta baita banaka ere. Izan ere, Jon Ander Esnaolak, iaz Imanol Arrutik bezala, bigarren mailako buruzburu txapela jantzi zuen.

Bestalde, Lizaso eta Pebet udaberriko lehen mailako ligaxkak 5 partidak irabazi dituzte eta aurrekoetara pasa dira.

## Iñurrieta upategira joateko irteera

ERREDAKZIOA

Ibarrako azokako Ardozaleen Txokoak jakinarazi duenez, hilaren 28an, larunbata, upategi batera joateko irteera antolatuko dute.

Horiek horrela, 9:30ean aterako dira eta iluntzean itzuliko dira Nafarroako Iñurrieta upategira bisita-

tu eta gero. Hamaiketarako, autobusarako eta bazkarirako txartelak 15 euro balioko du eta Ibarako Azoka dendan (Euskal Herria kalea, 45) eskura daiteke.

Taldeko kideek ibartar guztiei «gazte nahiz heldu» bertaratzeke deia luzatzen diete.

## Hilberria

**INÁKE URRESTARAZU AZURMENDI**  
(Lezoko alkate eta zinegotzi ohia)



Lezoko Udala,  
Alkateza,  
Udalbatza  
eta langileak.

LEZO  
2009ko  
martxoaren 12a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak





## Alkain eta bereak haur pilotariekin

**LEITZA** • Wazemank eta Noaaa telebista saioko aktoreak grabaketa lanetan aritu ziren atzokoan herriko plazan. Bertan, 50 haur leitzar zain zituzten, pilotariz jantzirik, grabaketan parte hartzeko prest. Programa eta denboraldi berria prestatzen ari omen dira Anjel Alkain eta bereak. Leitzan amaierako bideoaren zati bat

aritu ziren grabatzen. Dena oso laburra izan zen, 10 segundo eskas grabatu behar zituztelako. Euskal Herriko herri ezberdinetan ari omen dira lanean. Haur leitzarrek beraz denboraldi berriko programa amaierara arte ikusi beharko dute, eura izango baitira protagonista saioaren amaierako bideoan. **AI**

## Laburrak

### 1957ko kintoen afarirako izena emateko aukera

**LEITZA** • Kintoen afaria egingo dute 1957. urtean jaiotako herritarrek hilaren 28ean, larunbatean. Leitzako Musunzar Jatetxean. Antolatzaileek urte horretakoei gonbitea luzatu diete, alde batetik anima daitezen eta bestetik hilaren 25a baino lehen Jatetxean bertan euren izena eman dezaten. Menuari buruzko informazioa nahi duenak Musunzar Jatetxean galdetu beharko du.

### Xiberoara etzi joateko azken aukera gaur

**LEITZA** • Mendibil Mendi Taldeak Xiberoara irteera antolatu du etzi, hilaren 14an. Herriatik 07:30ean irtengo dira, 20:00ak inguruan itzultzeko. Goizean Holtzarteko zubira ibilaldia egingen da eta arratsaldean Maskarada ikusteko aukera egonen da Mauleko plazan. Izena eman nahi duenak gaur da azken eguna. Horretarako Mai-mur edo Astiz dendetara joan beharko du.

### Kantujiraren ekitaldi berria bihar 19:30ean Aurreran

**LEITZA** • Kantujira ekitaldi berri bat ospatuko da bihar Aurrera Elkartearen 19:30ean hasita. Bertan, herriko musikarien laguntzaz, euskal abestiak kantatuko dituzte gerturatzaren diren herritarrek. Ekimenarekin bat egin eta parte hartzeko kantuzalea izatea nahiko da. Kantujiraren sustatzaileek herritarrak Aurrera Elkartera gonbidatu dituzte, lotsarik gabe ager daitezen eskatuz.

## Goi mailako pilota partidak jokatuko dira bihar Amazabalen

**Pilota** • Abel Barriola eta Mikel Olazabal ikusteko aukera egongo da Aspek antolatatu duen jaialdiaren baitan.

### A. IMAZ

Lehen mailan pilotariak edukitzeaz gain lehen mailako partida jokatuko da Leitzako Amazabal pilotalekuan bihar 20:00etan hasiko den jaialdiaren baitan. Aresoarrek ere herriko semea gertutik gertura ikusteko aukera izanen dute frontoira hurbilduz gero.

Amazabalen Aspek 6 pilotarik bi norgehiagoka jokatuko dituzte, eta hauen artean etxeko pilotariak egonen dira, hau da, Abel Barriola eta Mikel Olazabal.

**Bihar 20:00etan Amazabalen** Jaialdia iluntzean hasiko da eta lehen partidari bi pilotari ariko dira nor baino nor. Apezetxeak aurrean Ongay edukiko du jaialdiari hasiera emango dion lehian.

Ondoren telebistako partidaren txanda izango da, lau pilotari handi irtengo baitira frontoira: Gonzalez-Beroiz eta Olazabal-Barriola.

### Sarrerak aldeztu aurretik hobe

Abel Barriola, Mikel Olazabal, Sebastian Gonzalez... izen handiak dira eta hauek ikusteko sarrerak aldeztu aurretik erostea hobe izango dela aipatu dute Aurrera Pilota Eskolako arduradunek. Horretarako 667 48 72 73 telefono zenbakira deitu beharko da. Hala eta guztiz ere egunean bertan txartelak salgai jarriko dira.



Abel Barriolak etxean eta Mikel Olazabalek etxetik gertu jokatuko dute. **HITZA**

## Tolosaldeko eta Leitzaldeko haur eta gazteentzat udalekuak

**Udalekuak** • Bertsozale Elkartek Bertso Udalekuetan izena emateko epea zabalik duela jakinarazi du.

### A. IMAZ

Euskal Herriko Bertsozale Elkartek Bertso Udalekuak 2009 antolatatu ditu aurturaren. Matrikulazio epea jadanik zabalik dagoela jakinarazi dute Bertsozale Elkarteko kideek, ondorioz, Tolosaldeko eta Leitzaldeko haur eta gazteek, 9-18 urte bitartekoek, uda honetan plan ezberdin bat edukiko dute aurretik.

Udalekuak Euskal Herriko bost txoko ezberdinetan egingo dira: Zuberoan Ligi-Athetxe herrian; Gipuzkoan Getarian; Nafarroan Iruñean; Araban Zuhatzan eta Bizkaian Muxikan.

Baina zer dira Bertso Udalekuak? «Bertsozaleentzat ondo pasatzeko lekua; talde txikiak izanik, lagun koadrila bat; bertsolariak

ezagutzeko eta zuzenean entzuteko aukera; Euskal Herri mailan beste herrialdeetako lagunak egiteko tokia eta begirale eta sukaldari *earrenak* saltsan».

### Uztailaren eta Irailaren

Bertso Udalekuetara joateko bertsoetan ez dela jakin behar aipatu dute ekimenaren sustatzaileek: «Bertsolaritza gustuko dutenentzat dira. Ez dira bertsolaritza klaseak ematen, eta udaleku hauetara joateko ez da bertsoetan jakin beharrik. Bertso ekintzetan, bakoitzak bere neurriko lanean hartzen du parte: bat-batean kantatuz, besteak gaiak jarritz, entzule gisa...».

Bertso Udalekuak uztailaren eta irailaren izango dira. Herri bakoitzak bere datak dauzka.

Matrikulazioarako edo izena emateko, hiru bide daude: [www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com) helbide elektronikoan; 943 69 41 29 telefono zenbakian eta matrikulazio horrien beteta. Orri hauek edozein Bertsozale Elkartetan aurki daitezke.

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendariak:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordeak:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzaileak:** Maider Garaioetxea.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irurra, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Albiztur.** Hilaren 28an Adunako Aburuza sagardotegira irteera autobusez, ondoren Hernanira joateko aukerarekin. Afaria eta autobusa, 33 euro. Izen-ematea, udal-txean.

■ **Ibarra.** Udal Liburutegiak antolatuta, Miriam Mendozaren ipuin kontalari saioa izango da Benito Izagurre kultur etxean 17:30etik aurrera, 2-4 urteko haurrei zuzenduta dago.

■ **Tolosa.** Hilabeteko zinema bonuak salgai daude Leidor aretoan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara eta pelikula orduetan 12 eurotan (arratsaldekoak 8; eta gauekoak 8 euro).

■ **Tolosa.** Emakume batzarra abortuaren inguruan hitz egiteko 19:30ean Kultur Etxean. Bilgune Feministak deituta.

■ **Tolosa.** Idoia Sanchez ipuin kontari Bonberenean 19:00etan; eta Gorringo taldearen emanaldia Sartutasortun (Kale Nagusia) 19:00etan, Ahoz aho ahozotasunaren nazioarteko jaialdian.

### Kirola

■ **Tolosa.** San Jose zubirako Tuc de Mulleres eta Besiberrira (Aran bailara) irteera antolatuta du Oargik. Izen-ematea, elkartean.

### Zinema

■ **Tolosa.** *The fall: el sueño de Alejandra* filma emango dute zine-forumean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, Ahoz aho jaialdian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzuz, 9. 943 675118.  
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.

# Venezuelaz jakiteko, astebete

**Alegia** » San Juan eskolan Venezuelaren Astea antolatu dute eta herrialdea hobeto ezagutu dute.

### NEREA URBIZU

Venezuelaren Astea izan dute Alegian egun hauetan zehar. Orain arte bezala, Alegiako San Juan eskolan herrialde berriren batetik haurren bat etortzen baldin bada, herrialde hori jorratu, lantzen dute. «Venezuelako bi haur etorri dira aurtengazko gure eskolara eta hori landu dugu».

Panel informatiboak egin dituzte Venezuelari buruzko datuak bilduz. LHkoek gimnastika eta musikako orduetan jorratu dute herrialdea eta diapositibak ere ikusi dituzte, irakasle batek egindakoak.

Normalean hiru hilabeteko lantzen dute herrialderen bat eta datorrena Errumania izango da. Jandantik Txina, Ekuador, Uruguai... landu dituzte.



Atzo Haur Hezkuntzako ikasleak jolastorduan Venezuelako jokuak egin zituzten. ESTI ZEIZA

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Arene Lasa Nieto (Laskibar).**

Gaur 5 urte. Etxeko guztion partetik... Ondo pasa eguna! Bost muxu goxo!



Villabonako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak, gure herriko ikasle gaztekoen artean idazteko trebetasuna sustatzeko, idazlan-sariketa hau antolatu du aurtengaz.

### OINARRIAK

1. Sariketa honetan, Villabonako bizi diren haurrak edota inguruko herrikoak izanda ere, Villabonako ikastetxeetan ikasten dutenek parte har dezakete. LH-ko 2. eta 3. zikloak eta DBH-ko 1. eta 2. zikloak daudenentzat izango da.
2. Ikasleek euskarazko bertso-sorta edo ipuina idatzi beharko dute eta gaia librea izango da. Dena den, DBH-ko 2. zikloan dauden ikasleek, ipuin edo bertso baten ordez, amodiozko gutun bat aurkez dezakete.
3. Neurriak:  
LH-ko 2. eta 3. zikloak:  
• ipuina zein bertsoa neurri librean.  
DBH-ko 1. eta 2. zikloak:  
• ipuina zein bertsoa neurri librean.
4. Pertsona berak, lan bakarra aurkez dezake.
5. Idazlanak ikastetxean bertan edo idazteko Euskara Zerbitzuan aurkeztuko dira.
6. Idazlanak aurkezteko epea, apirilaren 24a izango da.
7. Idazlanak sinatu gabekak izango dira eta izenburua eta izenitzaile bat izango dute. Honetaz aparte, kartazal baten barruan benetako datuak (izena, helbidea, telefono, ikastetxea eta maila) eta kartazalaren azalean, izenburua eta izenitzaile jarriko dira. Ordenagailuz eginda aurkezten diren lanak, bukatara arte gordetako dira argitalpenaren zuzenean erabili ahal izateko.
8. Behin betiko erabakiak maiatzaren jakingo dira. Sari-banaketa, maiatzaren 28an izango da, maiatzeko azken ostegunean.
9. Lan sarrituen argitalpena, 2009. urtean zehar egingo da.
10. Sariak ziklo bakoitzean banatuko dira.  
BERTSOA IPUINA  
1. Saria IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALA  
2. Saria KIROL MATERIALA  
3. Saria ESKOLAKO MATERIALA
11. Sariketa honetan parte hartzeak, oinarrizkoak eta epaimahaiaren erabakiak onartzea dakar.

## LIBURUA SALGAI

**Salmenta:**  
Liburuaren prezioa: **18 €**  
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitzako bazkideak: **14 €**  
**Eskaintza bereziak:**

5 liburu 80€  
10 liburu 140€

**Salmenta puntuak:**  
• Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitzako bulegoetan,  
• Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburutundetan,  
• Ibarako Lurdes liburutundetan,  
• Villabonako Basajaun liburutundetan.

